



Laneko Arriskuetan Aurreneurriak Hartzearen

KUDEAKETA ESKULIBURUA



Giza Urgazpenerako Foru Erakundea
(GUFÉ)

AURKIBIDEA

SARRERA

Orrialdea

1 Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Politika Orokorra

1.1 Printzipioen eta konpromisoen adierazpena	5
1.2 Aurreneurriak hartzearen jardueraren antolamendua. Funtzioak eta erantzukizunak	6
1.3 Laneko aldizkako bilerak.....	14

2 Arriskuen gaineko ebaluazioa

2.1 Arriskuen gaineko ebaluazioa	16
--	----

3 Arriskuen gaineko kontrola

3.1 Istripuen/inguruabarren ikerketa eta azterketa	20
3.2 Langileen osasunaren gaineko ikuskapena	22
3.3 Higiene arriskuen gaineko kontrol zehatza	24
3.4 Arrisku ergonomikoen eta psikosozialen gaineko kontrol zehatza	25
3.5 Sumatutako arriskuen eta hobekuntza iradokizunen jakinarazpena	26
3.6 Neurri zuzentzaileen jarraipena eta kontrola.....	28

4 Aurreneurriak hartzeko jarduera zehatzak

4.1 Proiektu berriak eta instalazioen, prozesuen, ekipoen edo substantzien aldarazpenak	29
4.2 Makinen, ekipoen eta/edo produktu kimikoen erosketa	31
4.3 Kontratazioa eta birkontratazioa; lana, pertsonak eta ekipok	33
4.4 Prebentziozko mantentze-lanak	35
4.5 Lan prozedurak	36
4.6 Produktuen, azpiproduktuen eta hondakinen segurtasuna	38
4.7 Ezaugarri bereziak dituzten langileen babesa	40

5 Langileen informazioa eta prestakuntza

5.1 Lantokietako arriskuen gaineko informazioa	41
5.2 Langileen hasierako prestakuntza eta etengabekoa	43

6 Arau orokorrak

6.1 Norbera babesteko ekipok eta laneko janzkiak	45
6.2 Larrialdietako Plana.....	47
6.3 Segurtasuneko seinaleztapena.....	49

SARRERA

Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko 31/1995 Legearen ekarpen nagusienetako bat jarduteko esparrua eta gidalerro zehatzak ezartzearena da, enpresek aurreneurriak hartzeko sistema eraginkorra, dokumentatua eta haien ekoizpen prozesuetara eta enpresa jardunera egokiturikoa antola dezaten. Horren bidez, langileen osotasun fisikoa eta morala bermatzen dira.

Aurreneurriak hartzearen jarduera adierazitako legearen **14.2 artikulua**ren arabera garatu behar da, etengabeko hobetzeko jarduera moduan eta **eraginkortasunerantz** bideratuta, hau da, ezbehar kopurua oso baxua izatea lortzea, lantoki duin eta osasungarriak izatea eta langileek aldeko iritzia izatea garatutako jardueren inguruan, *nahiz eta ez dagoen derrigorrezko arau zehatzik haren ezaugarri propioak definitzeko*. Hala eta guztiz ere, adierazitako legeak derrigorrez gain hartu beharreko kasuan kasuko gidalerroak jartzen ditu. UNE-81900 *Laneko arriskueta aurreneurriak hartzearen kudeaketa sistema* eta OHSAS 18000 *Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemak* arauak nahiz Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) Gidalerroak erreferentzia onak dira horiek kontuan izateko. Horiekin **lege eskakizuna** bete egiten da, baina, horrez gain, beharrezko mekanismoa jartzen du aurreneurriak hartzearen jardueran esku hartzen dutenen aldetik ikaskuntza errazteko, eta, garrantzi berdinarekin, jarraipen eta ebaluazio prozesua errazteko. Izan ere, azken hori erabakigarria da edozein hobekuntza jardueran.

Lege derrigorraz gain, **mota etiko eta ekonomikoko arazoak** daude lanetik eratorritako kalteak deuseztatzeko edo, hori posible ez bada, kalte horiek gertatzeko aukera gutxitzeko. Ondorioz, enpresak istripuen arazoien, laneko gaixotasunen eta lanetik eratorritako gainerako kalteen gainean jardun behar du.

Egun pertsonak, ekarpen eta sormen ahalmenari esker, enpresaren balio nagusia dira. Ondorioz, haien lan baldintzak faktore estrategikoa dira kalitate eta lehiakortasun maila onargarriak lortu ahal izateko. Prestakuntza duten pertsonak eta zehaztutako helburuekin identifikatzen diren pertsonekin bakarrik lor daiteke laguntza sistemak behar duen eraginkortasuna. Horretarako, funtsezkoa da prebentzioa kudeatzeko sistema bat jartzea eta hura enpresan jada badauden gainerako sistemekin koherentzian egotea eta harekin loturak izatea, adibidez Kalitatearen sistemarekin.

Eskuliburu hau aurreneurriak kudeatzeko sistemaren oinarritzko dokumentua da, eta laguntza handikoa da enpresaren prebentzio politika biltzeko eta eremu honetan lortu nahi diren helburuak argitzeko.

Edonola ere, garrantzitsua da sistema burokrazia hutsa bihurtzean ez erortzea. Ez da ahaztu behar prozedurak lanerako baliabide erabilgarria direla, baina hori ez da nahikoa. Laneko arriskueta aurreneurriak hartzearen jarduera zuzendaritzaren konpromisoan eta erakundeko kide guztien konfiantzan oinarritu behar da eraginkorra izatea nahi bada. Horiek prozesuaren garrantziaz jabetu behar dira eta legaltasuna betez egindako kasuan kasuko jardueren eraginkortasuna eta balioa ere sortzen dela eta kostu nabarmenak gutxitzen ari direla egiaztatu.

Ez da ahaztu behar aurreneurriak hartzeko sistema batean funtsezkoa dena zuzendarien, teknikarien eta langileen arteko konfiantzan oinarritzea dela, eta, zentzu horretan, funtsezkoa da komunikaziorako bide eraginkorrak ezartzea.

Prozedura dokumentalek horiek sendotzen besterik ez dute laguntzen, horrelakorik badago eta elkarrekiko konfiantzan oinarritzen badira, komunikazio positiboko prozesu ororen funtsezko oinarri izaki.

Edonola ere, normalizazio dokumentatua ez litzateke mugapena izan behar berrikuntzarentzat eta sormenarentzat, ezinbestekoak baitira eremu guztietako hobekuntza prozesuentzat.

1. LANEKO SEGURTASUN eta OSASUNARI BURUZKO POLITIKA OROKORRA

1.1. PRINTZIOEN ETA KONPROMISOEN AITORPENA

Gizarte Urgazpeneko Foru Erakundeak (GUFE) erakundeko zentro guztien lan baldintzak etengabe hobetzea sustatzea du oinarrizko printzipio eta funtsezko helburuetako bat bezala. Horretarako, Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak eta hura garatzen duen arautegiak adierazten dituen betebeharrak gain hartzen ditu, eta eremu horretan jarduteko maila baxuentzat hartzen.

Legetik eratorritako aurreneurriekiko eta erantzukizunarekiko konpromiso horrek GUFEda eratzen duten maila guztiak harrapatzen ditu: zuzendaritza, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta, nolabait, zentroetakoren batekin lotura bat edo beste dutenak.

Politika hori gain hartuta eta estamentu guztiek horiek jarduera guztietan betez eta errespetatuz bakarrik izango da posible adierazitako helburua betetzea.

Xede horretarako, GUFEda zera egingo du:

- Arriskueta aurreneurriak hartzeko sistema ezarriko du, xede horretarako GUFEda eskura dauden baliabide egokiak izanez;
- Aurreneurriak hartzeko jarduera Foru Erakundearen maila eta jarduera guztietan sartuko du;
- Aurreneurriak hartzeko kultura sustatuko du eta jada agertutako arrisku egoerak zuzentzera soilik mugatzen ez diren jarduerak bultzatuko ditu;
- Prestakuntza eta informazio jarduerak garatuko ditu, lanetik eratorritako arriskuen gaineko ezagutza hobea izate aldera;
- Langileen kontsulta eta parte-hartzea bultzatuko du laneko arriskueta aurreneurriak hartzeara jardueraren kudeaketa;
- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFE) segurtasuna eta osasuna etengabe hobetzera zuzendutako prebentzio eta jarduera planak garatuko ditu;
- Beharrezko bideak eratuko dira sumatutako arriskuak jakinarazteko nahiz langileek egindako hobekuntza iradokizunak kontuan har, azter eta, egoki irizten bada, horiek aplikatu daitezten;

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak, dokumentu honen bitartez, konpromisoa agertzen du argi eta garbi eta egituraren osagai guztiei helarazten die.

1.2. AURRENEURRIAK HARTZEAREN JARDUERAREN ANTOLAMENDUA. Funtzioak eta erantzukizunak

Prebentzio Zerbitzuen Arautegiaren arabera (urtarrilaren 17ko 39/97 ED), GUFEK Prebentzio Zerbitzu propioa eta askea izan behar du.

Hura Gobernu Batzordearen akordioarekin sortu zen 1998ko martxoaren 12an, hurrengo goi-mailako espezialitateekin:

- Laneko Segurtasuna.
- Laneko medikuntza.
- Gainerako espezialitateak Kanpoko Prebentzio Zerbitzuekin itunduz, etorkizunean Prebentzio Zerbitzu propioan sartzea alde batera utzi gabe.

Koordinazioan jardungo dute, batez ere lanpostuen prebentzio diseinuaren, arriskuak identifikatu eta ebaluatzearen, prebentzio planen eta langileen prestakuntza planen eremuan. Adituek, zuzenean, euren espezialitatearen eremuko aurreneurriak egitea gain hartuko badute ere, aurreneurri batzuetan GUFERen beste antolamendu maila batzuk parte hartuko dute: zuzendariak, teknikariak, agintari eta langileak...

Aurreneurriak hartzeko ardura duen zerbitzu moduan, prebentzio lanak egingo ditu langileen segurtasuna eta osasuna egoki babesten dela bermatzeko xedez. Talde honi eta honen ordezkariari aholkularitza eta laguntza emango zaie, gobernu organoei eta ordezkarietara organo espezializatuei bezalaxe, hurrengo eremuetan:

- a. Langileen segurtasunari eta osasunari eragiten dioten arrisku faktoreak ebaluatzea.
- b. Aurreneurrien planak eta programak diseinatzea, aplikatzea eta koordinatzea.
- c. Lehentasunak zehaztea aurreneurri egokiak hartzerakoan eta horiek eraginkorrak direla ikuskatzean.
- d. Langileei informazioa eta prestakuntza ematea prebentzioaren eta babesaren alorretan.
- e. Larrialdietako Plana definitu eta zehaztea.
- f. Langileen osasuna zaintzea euren lanetik eratorritako arriskuei dagokienez.

Kanpoko Prebentzio Zerbitzu batera edo bat baino gehiagora jo ahalko da, eta horiek kasuan kasuko lan Agintaritzaren ziurtagiria izan beharko dute, arautegiak ezartzen dituen betekizunak biltzen dituela ziurtatu izan ondoren emanikoa. Instalazio eta baliabide material eta giza baliabide egokiak izan beharko dituzte, adostutako aurreneurria egoki garatu ahal izateko. Horretarako, eman behar diren prebentzio zerbitzuen mota, zabalera eta maiztasuna kontuan izan beharko dira, prestazio hori eman behar den lantokien kokapenarekin batera. Prebentzio zerbitzuak elkarlanean aritu behar dira beharrezkoa denean.

1.2.1 FUNTZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

✚ ERAENTZARENA ETA ZUZENDARITZA TALDEARENA

Zuzendaritzaren erantzuna da GUFeko langile guztien segurtasuna eta osasuna bermatzea. Horretarako, hierarkiako maila bakoitzari dagozkion funtzio eta erantzukizunak definituko ditu, hartutako konpromisoak eskuliburu honetan zehaztutakoaren bitartez bete daitezzen. Halaber, hainbat jarduera bideratuko ditu, pertsonen eta haiek erakundearen barruan egingo duten lanaren baldintzekin konpromiso argizat jotzen dena hartuko da. Horretarako, jarduera eta erabaki guztien multzoan sartuko da, bai prozesu teknikoetan eta lanaren antolamenduan, bai hierarkia lerroan, haren maila guztiak barne.

Modu berean, haren erantzukizuna izango da erakundearen zuzendari eta eremuko arduradunen artean aurreneurriak hartzearen kultura sustatzea, aurreneurriak hartzeko politika hedatu eta ulertzen dela ziurtatzea, hura betetzen dela eskatzea, programak eta prozedurak onartzea eta baliabideen zuzkidura baimentzea.

✚ Zuzendariena eta Eremuko arduradunena

Zuzendari eta arduradunen funtsezko eginbeharra da segurtasuna kudeatzearena. Horretarako, aurreneurriak planifikatu, antolatu, ezarri, zuzendu eta kontrolatu behar dira beren erantzukizun eremuaren barruan.

Arauak, gidalerroak eta segurtasunaren eremuko prozedura orokorrak ezagutzeaz arduradun izaki, arau horiek eta beren Lan Zetroko aurreneurriak bete eta horiek betearazi behar dituzte, istripuak prebenitu, neurri zuzentzaileak hartu, istripuak/inguruabarrak jakinarazi eta/edo ikertzearekin batera. Helburua horiek sortzen dituzten arrazoiak zehaztea, lanpostu batean hasten diren pertsonen gaineko berri ematea da, langile guztiak segurtasunaren gaineko prestakuntzara iristearen ardura gain hartuz.

Horretarako, Prebentzio Zerbitzuaren aholkularitza izango dute.

✚ Erdi-mailako agintariak

Enpresaren sail edo funtzio unitate ezberdinetako arduradunek bere agintaritzapean dituzten langileei informazioa eta prestakuntza emango diete, eta langile horiek dauden lan prozeduren arabera ezarritako aurreneurriak betetzearen eta laneko arriskuei aurrea hartzeko arautegia betetzen dutela zaintzearen arduradun izango dira.

Laneko ekipoak, baliabideak eta makineria egokia erabiltzen direla zainduko dute, horiek lanerako erabili behar direnean.

✚ Langileria

Langileen erantzukizuna izango da euren jarduera profesionalerako hartutako prebentzio neurriak betetzen direla zaintzea, laneko tokiak garbi eta txukun mantenduz; makinak, erremintak eta lagatako ekipoak egoki erabiliz; enpresak segurtasunaren eremuan prestakuntza eta informazioa emateko antolatzen dizkien ikastaro eta jardueretara joanez; euren segurtasun eta osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen egoerak jakinaraziz, eta edozein larrialdiren aurkako borrokan lagunduz eta gainetik duenari edo ordezkari sindikalen bitartez egoki irizten dituen neurriak iradokiz norberaren segurtasuna eta osasuna, eta baita gainerakoena ere, bermatu eta ziurtatu ahal izateko.

✚ Prebentzio Zerbitzua

Prebentzio Zerbitzuen Arautegian (39/97 ED) ezartzen denaren arabera, GUF EK, beste edozein enpresak bezala, Prebentzio Zerbitzu propioa izan beharko du plantilaren neurriaren arabera.

Prebentzio Zerbitzu propioa antolamendu unitate zehatza izango da, eta bertako kideek enpresan garatu beharreko lana egin behar horretan beteko dute bakar-bakarrik.

Prebentzio Zerbitzu propioak instalazioak eta giza baliabide eta baliabide material egokiak izan beharko ditu, enpresan garatu beharreko aurreneurriak egin ahal izateko.

GUF Eko laneko arriskuen Prebentzio Zerbitzua Kudeaketa Idazkaritzaren menpekoa izango da hierarkian.

Haren funtzioak Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko 31/1995 Legean biltzen dira.

Hurrengoak egingo ditu: erakundearen hierarkia maila ezberdinei laguntza eman; aholkularitza teknikoa hari dagozkion gaietan; lan Zentro guztietan aurreneurriak sustatuko ditu; aurreneurrien eremuan sortzen diren ekimenak bultzatu eta koordinatuko ditu, eta aurreneurrien urteko planean bildutako helburuak betetzen direla kontrolatuko du.

Halaber, Prebentzio Zerbitzuaren betebeharra izango da:

1. Laneko arriskuen eremuko prebentzio programak landu, koordinatu eta aplikatzea, zuzendaritzarekin eta arduradunekin sortutako mekanismoen bitartez.
2. Laneko arriskuen ebaluazioa eta plangintza lanpostu bakoitzean.
3. Lehentasunak zehaztea hartutako aurreneurriak burutzerakoan, haien eraginkortasuna ikuskatzearekin batera.

4. Larrialdietako planak ezartzerakoan aholkularitza eta babesa ematea.
5. Larrialdietako taldeak antolatzea eta simulazioak bultzatzea.
6. Langileen osasunaren gaineko ikuskapenak egitea (EOA).
7. Segurtasuneko barne arautegien sorreran parte hartzea.
8. Laneko istripuen azterketa eta ikerketan laguntzea, ikerketa espezializatuak eginez egoki denean.
9. Laneko segurtasuna enpresaren maila guztietan sustatzea.
10. Laneko arriskuaren gainean prestakuntza planetan parte hartzea.
11. Aurreneurrien kultura bultzatzea erakundearen hierarkia maila guztietan, erantzukizun partekatu moduan.
12. Urteko memoria lantzea.
13. Aholkularitza teknikoa langileentzat eta ordezkariarentzat.

✚ Segurtasun eta Osasun Batzordea

Parte-hartzearen kontsulta organoa eta organo parekatua da; bertan, laneko arriskueta aurreneurriak hartzeari buruzko gai guztiak eztabaidatuko dira. GUFEn, Aldundiaren kide den erakunde moduan, haren Segurtasun eta Osasun Batzordeko kide izango da.

Segurtasun eta Osasun Batzordeak eskumen hauek izango ditu, 31/1995 Legean bildu direnekin adierazita:

1. Enpresaren prebentzio planen eta programen lanketan, praktikan jartzean eta ebaluazioan parte hartzea. Horretarako, batzordearen baitan, hurrengo arriskuei aurrea hartzean duten eragina eztabaidatuko da:
 - a. *Plangintzaren, lana antolatzearen eta teknologia berriak sartzearen eremuko proiektuak.*
 - b. *Babes eta prebentzio jarduerak antolatu eta garatzea.*
 - c. *Prebentzioaren eremuko prestakuntzaren proiektua eta antolamendua.*
2. Arriskuei aurrea hartzeko metodoen eta prozeduren gaineko ekimenak sustatzea, enpresari baldintzak hobetzea edo dauden gabeziak zuzentzea proposatuz.
3. Laneko zentroan arriskuei aurrea hartzeari buruzko egoeraren gaineko informazioa eskuratzea, egoki irizten diren bisitak eginez xede horretarako.
4. Laneko baldintzei buruzko behar adina dokumentu eta txosten kontsultatzea egokitutako funtzioak betetzeko. Halaber, prebentzio zerbitzuaren jardueretatik eratorritakoak aztertu beharko dira.
5. Langileen osasunean eta osotasun fisikoan eragindako kalteak ezagutu eta aztertzea, arrazoiak baloratzeko eta kasu bakoitzean aurreneurri egokiak proposatzeko.
6. Prebentzio Zerbitzuen urteko memoria eta programazioa ezagutzea.
7. Batzordeak berak ezar ditzakeen beste funtzio batzuk.

✚ Aurreneurrien ordezkariak

Arriskueta aurreneurriak hartzearen gain eskumen zehatzak dituzten langileen ordezkariak dira.

Haien eginbeharrak honakoak izango dira:

1. Aurreneurriak hartzearen hobekuntzan enpresaren zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea.
2. Langileen parte-hartzea bultzatu eta sustatzea, laneko arriskuen gaineko arautegia gauzatzean.
3. Gauzatu aurretik enpresariaren kontsulta jasotzea segurtasunaren eta osasunaren eremuko arriskuei aurrea hartzearen inguruko erabaki guztietan. Horiek 31/1995 Legean sartzen dira eta kontsulta derrigorrezkoa da.

4. Ikuskapen, kontrol eta informazio lanak egitea laneko arriskuei aurrea hartzeko arautegia betetzeari dagokionez.

Haien eskumenak honakoak izango dira:

1. Aurrea hartzeko ebaluazioetan teknikariei laguntzea eta Lan eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileei zentroetara eginiko bisitetan ere laguntzea.
2. Funtzioak garatzeko behar izan daitezkeen lan baldintzei buruzko informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko aukera izatea.
3. Langileen osasunean eragindako kalteei buruzko informazioa ematea, behin enpresak horien berri izanda. Lanorduetatik kanpo ere kasuan kasuko tokira bertaratu ahalko da, jazotako inguruabarren berri izateko.
4. Laneko tokietara bisitak egitea lan baldintzen egoeraren gaineko ikuskapen eta kontrol lanak egiteko. Xede horretarako zentroetako edozein tokitara sartu ahalko dira eta lanaldi osoan zehar langileekin komunikatu.
5. Arriskuei aurrea hartzeko proposamenak egitea, erakundeari nahiz Prebentzio Zerbitzuari, horiek eztabaida ditzaten.

1.2.2 EDUKIA ETA GARAPENA

- Osasunerako, segurtasunerako eta istripu larriak izateko arriskuak identifikatu eta ebaluatuko dira, kasuan kasuko neurri zuzentzaileak eta aurrea hartzekoak ezartzeko xedez.
- Urtero, lege eskakizunak betetzeko, laneko arriskuei aurrea hartzearen aldeko jarduerak hobetzeko eta istripu larriei datxezkien arriskuak gutxitzeko helburuak zehaztuko dira.
- Prestakuntza jarduerak garatuko dira GUFeko langileek eta kontrata eta birkontratek laneko arriskuei aurrea hartzeko sistema eta istripu larrien arriskuak ezagutu, bertan parte hartu eta beren lanetan osoki aplikatu ditzaten.
- Aldizka kudeaketaren, instalazioen, eragiketen eta arriskuei aurrea hartzearen gaineko auditoretzak egingo dira, istripu larriei datxezkien arriskuenak barne. Helburua legea eta arautegia betetzen diren edo ez ziurtatzea da.
- Antolamenduan, instalazioetan, prozesuetan eta biltegi eremuetan izan daitezkeen aldaketak planifikatu eta kontrolatuko dira, istripu larrien arriskua kontrolpean dagoela ikuskatu eta ziurta dadin.
- Jardueretatik eratorritako edo haiekin zerikusia duten arriskuak eta egon daitezkeen larrialdi egoerak identifikatu eta aztertuko dira, jarduerak eta norberaren burua babestearen antolamendua planifikatuz. Horren bidez barne larrialdiko planen bitartez egon daitekeen hondamena kontrolatuko litzateke.
- Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Sistema aplikatu daitezkeen legeriarekin bat etortzearen bermea auditoretzen bitartez egingo da. Horiek erakunde aske batek egingo ditu, laneko agintaritzaren egiaztapena izanez.

1.2.3 HELBURUA

Helburua, lehentasunezko irizpide moduan, pertsonen aurkako arriskuari eta kalteari aurrea hartzea da. Aitzitik, adierazitakoa ez da helburu bakarra, horrek galera material eskasagoetan eragina izango duela kontuan hartzen bada.

Zehazki adierazteko, laneko Segurtasunaren arduraren laneko Istripuaren aurre-hartze teknikoak da.

Egun, Laneko Arriskuen Prebentzioa "Segurtasun Integratu" moduan ulertzen da lanak, instalazioak, makineriak, ekipoak edo prozesuak proiektatu edo diseinatzerakoan. Izan ere, fase horietan hartutako aurreneurriak, kostu gutxiagokoak izateaz gain, jada funtzionamenduan dauden prozesu edo metodoetan egindakoak baino eraginkorragoak dira.

Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legean bildutako printzipio orokorrak, langileen osasuna babestera eta pertsonak enpresaren arrakastaren funtsezko aldeetako bat bezala duen balioa onartzen duen enpresa kultura egonkortzen duen sorburua eratuko duten aurreneurriak jasotzen dituztenak hain zuzen, hurrengoak izango dira:

- Arriskuak saihestea.
- Ekidin ezin daitezkeenak ebaluatzea.
- Behin arriskuak ebaluatuta, arriskuei jatorrian aurre egitea.
- Lana pertsonari egokitzea, lana ulertzeko moduan, antolamenduan eta lan eta ekoizpen metodoen gainean jardunez.
- Helburu horiek teknikaren egoera eta eboluzioa kontuan hartuz betetzea.
- Orokorrean, arriskutsuena dena arriskurik ez duenarengatik edo hain arriskutsua ez den beste ezerengatik ordezkatzea.
- Aurreneurriak ekoizpena, antolamendua, lan baldintzak eta sozietatearekiko elkarrizketa biltzen dituen multzo koherentean sartu behar dira.
- Taldeko babes neurriak hartzea lehentasunez eta banakako babesetara jotzea, bakarrik, egoeran beste edozein hautabide ezinezkoa bada.
- Enpresako kide guztiek esku-hartzea izango dute prebentzio jardueretan, kalte pertsonalak eta materialak saiheste aldera horretarako ezarritako funtzioekin bat etorritik.
- Lanpostuaren baldintzei eragin diezaikekeen edozein aldarazpen edo aldaketa garrantzitsu langileek kontsultatuko dute.
- Langileentzako gaitasun eta trebakuntza plana egongo da egiten dituzten eginbeharrarako. Horretarako, hasierako prestakuntza garatuko da lanpostu batean hasten den pertsona guztientzako, une oro eginbeharrak egoki egitea ahalbidetzen duen etengabeko prestakuntzarekin batera.

1.2.4 HELMENA

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFEn) menpeko langile guztiak harrapatzen ditu, haien kontratu mota, laneko harremana eta iraupena edozein izanda ere.

Halaber, GUFEntzat lan egiten duten kontratatako eta birkontratatako langile guztiak harrapatzen ditu, indarreko arautegiak zehazten duen moduan.

1.3 LANEKO ALDIZKAKO BILERAK

1.3.1 HELBURUA

Laneko arriskuei aurrea hartzearen inguruko aldeak laneko ohiko bileretan sartzea.

1.3.2 HELMENA

Kapitulu honen helmenaren barruan sartzen dira erakundearen eremu ezberdinetan egiten diren laneko ohiko bilerak, aldizkakoak edo zehatzak izan: Zuzendaritzakoak, funtzio unitateetako arduradunek eginikoak, erdi-mailako agintariak eta langileek eginikoak, laneko jarduerekin zerikusia izan badezakete. Halaber, aurreneurriak hartzeko funtzioetara zuzendutako talde ezberdinen bilera zehatzak gogartu beharko lirateke.

1.3.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Zuzendaritza

Zuzendaritzak laneko arriskuei aurrea hartzeari buruzko aldeak parte hartzen duen bileretan sistematikoki hizketa-gai izatea bultzatu beharko luke, horiengatik interesa agertze aldera. Bestalde, bilera zehatzak ezarri beharko lituzke gai horien inguruan, elkarrekin aurreneurrien sistemaren eboluzioari eta ezarritako helburuak betetzeari buruzko hausnarketa egite aldera.

Zuzendari eta/edo arduradunak

Zuzendari eta arduradunek laneko arriskuei aurrea hartzeari buruzko aldeak aztertu beharko lituzkete laguntzaileekin egiten dituzten azterketa eta plangintza bileretan, aurreneurrien sistemak berak sortzen duen informazioa eta beren jarduera eremuetan garatutako jarduerak aprobetxatuz.

Erdi-mailako agintariak

Erdi-mailako agintariak langileekin batera aztertu beharko lituzkete beren jarduera eremuetan, laneko arriskuei aurrea hartzeko arloan, gertatutako inguruabarrak, eta eginbeharrak planifikatzeko bilerak aprobetxatu beharrezko aurreneurrien betetze-mailaren inguruko informazioa emateko.

1.3.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Erakundea jabetu egin beharko litzateke funtzio unitate berdineko pertsonen arteko lankidetzaz eta komunikazioaren garrantziaz, eta baita funtzio unitate ezberdinen artean daudenen garrantziaz ere. Helburua norberaren eta taldearen ahalmenak eta ekarpenak garatzea litzateke, ekoizpenaren eta zerbitzuaren inguruko aldeak hobetzeko nahiz lan baldintzei buruzkoak garatzeko.

Elkarrekiko konfiantzan oinarritutako pertsonen arteko komunikazioa maila guztietan bultzatu behar da, maila formaletan nahiz informaletan. Behar bezala aprobetxatutako bilerak ideiak trukatzeko eta informazioa ekartzeko bide azkar bihurtu daitezke. Beharrak edo interes zehatzak sortzen direnean bilerak arin egin daitezkeenaren kaltetan izan gabe, komenigarria da horien gaineko plangintza izatea.

Aldez aurretiko beharrezko informazioa ekarri behar da, behar besteko aurrerapenarekin deialdia egin, iraupena ezarri (printzipioz ez du ordubetea gainditu behar), bilera garatzeko metodoa izan eta, beti, ondorio argiak eta garatu beharreko lanak atera haieztatik.

Planifikatutako bilerak aldizkakotasun zehatzarekin egingo dira helburuen arabera. Adibidez, probetxu handikoak dira erdi-mailako agintariek beren menpeko langileekin garatutako bilera labur eta egunerokoak, eraikuntza edo muntaketa aldatetapean jarritako jarduerak direnean. Helburua eguneroko lan plana berrikustea da. Halaber, astero egiten diren bilerak oso erabilgarriak dira, bai informazioa trukatu eta ezagutza eta esperientziak eguneratzeko, bai egindako jarduna eta etorkizun hurbilean garatu nahi dena aztertzeko. Aldizkakotasun txikiagoarekin jarraipen bilerak egin beharko lirateke bidean dauden proiektu eta jardueren gainean.

Pertsonen laneko bilerak garatzeko teknika ikastearen garrantzia azpimarratzekoa da, jardueraren eraginkortasuna optimizatze aldera. Bileraren koordinatzailearen irudia funtsezkoa da bileraren garapena bideratzeko eta ondorioak ateratzea errazteko. Bileraren koordinatzailea zuzendari funtzioak dituen pertsona izatea ohikoa den arren, egin behar hori taldeak berak erabakitako beste pertsona bati eman dakio, bileraren beraren helburuen eta aukeratutako pertsonaren ezaugarrien arabera. Funtsezkoa da horrela izatea orokorrean hobekuntzak egitera zuzendutako lantaldeen bilerak izatean.

2. ARRISKUEN GAINEKO EBALUAZIOA

2.1. ARRISKUEN GAINEKO EBALUAZIOA

Dagoen esparru arautzailearekin bat etorriz, arriskuen gaineko ebaluazioa sistemaren oinarritzeko elementua da. Izan ere, hartatik abiatuz ez dira bakarrik arriskuen kontrolerako planifikatutako jardura ezberdinak antolatu behar, baita prebentzioko sistema beraren kudeaketa elementu ia guztiak ere.

2.1.1 HELBURUA

Hasierako arriskuen ebaluazioaren eta aldizka egin beharrekoaren prozedura ezartzea, laneko tokietan saihestu ezin izan diren arriskuak edo arrisku faktoreak identifikatu eta baloratzeko. Horretarako, horiek deuseztatu edo kontrolatzera zuzendutako aurreneurriak hartzeko moduan egoteko beharrezko informazioa lortu beharko da, lehentasunak ezarriz hartu beharreko prebentzio neurrietan eta kasuan kasuko kontrol neurri egokiak ezarriz.

2.1.2 HELMENA

Arriskuen ebaluazioak GUFEn egin behar eta lanpostu guztiak harrapatu behar ditu, eta lanpostuan edo ingurunean saihestu ezin izan diren arrisku guztiak aintzat hartu behar ditu, langileen segurtasunari eta osasunari eragin badiezaioke.

2.1.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Laneko arriskuen ebaluazioa enpresaren *zuzendaritzaren* ardura da.

Ebaluazio hori Prebentzio Zerbitzuaren eta zentral sindikalek izendatutako prebentzio ordezkarien laguntza, koordinazio eta aholkularitzarekin egingo da.

Hori ez da izan behar zentro bakoitzean, eta segurtasun integratuaren ideia pean, aginte linearen nahiz langileen esku- eta parte-hartzea beharrezkoa eta ezinbestekoa izatearen kaltetan izan behar, ebaluazioa ahalik eta zehatz eta egokiena izateko. Izan ere, ezagutza handiagoak dituzte lanpostuaren ezaugarrien eta haren arriskuen gainean.

Kontratututako lanpostuen edo eginbeharren kasuan, arriskuen ebaluazioa egitearen ardura duena kontratatutako enpresa izango da hasiera batean, nahiz eta enpresa nagusiak informazioa eman beharko duen langileek, eremu jakin batean lan egiteagatik, aurre egin beharko arrisku zehatzen gainean. Enpresa nagusiak, gainera, ebaluazioa berrikusi beharko du egoki garatu dela egiaztatzeko.

✦ Zuzendariena eta arduradunena

Bakoitzaren sailean egindako arriskuen ebaluazioak egoki egiten direla bermatu beharko dute, beharrezko denbora, informazioa eta baliabideak jarritz xede horretarako.

Behin Segurtasun eta Osasun Batzordeak lanpostu baten Arriskuen gaineko ebaluazioa eginda, zentroko zuzendariak gomendatutako neurri zuzentzaileak hartzea sustatu behar du bere zerbitzuplean jarritako langileei dagozkien lanpostuetan. Halaber, neurri horiek efizienteki, eraginkortasunez eta benetan betetzen direla bermatu beharko du.

✦ Erdi-mailako agintariak

Ahalik eta babes eta informazio gehien emango diete ebaluazio taldeei, arriskuen gaineko ebaluazioa egiteko behar izan dezaketen guztian.

✦ Prebentzio Zerbitzua

Ebaluazio taldearen zati finkoa izango da. Erakundeari, lanpostuen funtzioen eskuliburuari, ekipoei, erabilitako materialei, langileen osasun egoerari buruz eskuratutako informaziotik abiatuz, elementu arriskutsuak edo arriskua izan dezaketenak zehaztuko ditu, haren pean jarritako langileen identifikazioa eta lanpostuan dauden arriskuen balorazioa barne.

✦ Prebentzioko ordezkariak

Ebaluazio taldearen zati finkoa izango da. Teknikariek elkarlanean arituko dira laneko ingurumenean egiten diren aurreneurrien ebaluazioetan. Lantokietara bisitak egingo ditu ikuskapen eta kontrol lana egiteko lan baldintzen egoeraren gainean.

✦ Segurtasun eta Osasun Batzordea

Enpresaren prebentzio plan eta programen lantzean, martxan jartzean eta ebaluazioan parte hartuko du, baldintzak hobetzea proposatuko dio enpresari eta sumatutako gabeziak zuzentzeko adieraziko.

✦ Kanpoko Prebentzio Zerbitzuak

Teknikoki ezinezko izateagatik edo baliabide zehatzak ez izateagatik arriskuen ebaluazioak gomendatzen dituen prozedurak egingo ditu (neurketak, azterketa, inkesten balorazioa, eta abar).

2.1.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Arriskuen gaineko hasierako ebaluazioa egingo da, enpresako lanpostu eta eginbehar guzti-guztiak aztertuz. Ebaluazio horretatik abiatuz, aurreneurrien biderapena planifikatuko da ondoren.

Hasierako ebaluazio hori berrikusi egingo da hurrengoak agertzen diren bakoitzean:

- Lantaldeetan, substantzietan edo prestakin kimikoetan aldaketak egiten direnean, ohikoetatik kanpo, teknologia berriak sartzen direnean edo lantokien egokitzapena aldatzen denean.
- Lan baldintzak aldatzen direnean, modu esanguratsuan instalazioen, erakundearen edo laneko metodoen inguruko alderen bat aldatzean.
- Langileen osasunean kalteak sumatzean.
- Aurreneurriak desegokiak edo eskasak direla igartzean.
- Legez arrisku jakin batzuk aztertzekeo aldizkakotasun zehatza dagoenean.

Lehen adierazitakoa horrela izanda ere, eta Arriskuen Ebaluazioa prozesu dinamiko moduan planteatzen bada ere, aldizkako arrisku ebaluazioak ezarriko dira enpresak eta langileen ordezkariak adosten duten moduan. Izan ere, enpresaren dinamikak berak agerian garrantzirik ez duten aldaketak pixkanaka egitea ekartzen du, eta gerta liteke orokorrean hasierako baldintzak nabarmenki eraldatzen aritzea.

Behin arriskuen ebaluazioa eginda eta lortutako emaitzen arabera, aurreneurrien hartzeko jarduerak planifikatuko dira kasuan kasuko neurri egokiak ezartzeko. Aurreneurrien plangintza enpresaren jardura guztietan sartuta egon beharko da, eta hierarkia maila guztiak inplikatu beharko ditu. Adierazitako plangintza hori denboraldi jakin batez programatuko da, eta garapenean lehentasunak ezarriko dira sumatutako arriskuen garrantziaren eta kalteturik irtendako langile kopuruaren arabera. Epeak ezarriko dira eta arduradunak izendatuko dira.

Lanpostuetan ebaluazio lana amaitzean, aztertutakoa erregistratu eta dokumentu bidez jaso beharko da, emaitzak alderatuz egoki irizten denean. Lanposturen baten gainean egindako ebaluazioak agerian uzten badu aurreneurrien bat hartzea beharrezkoa dela edo dagoena kontrolatu egin behar dela, hurrengo datuak jaso egin beharko dira dokumentu bidez:

- Lanpostuaren identifikazioa.
- Dauden arriskuak edo egon daitezkeenak.
- Kalteturako langileen zerrenda.
- Ebaluazioaren emaitza eta hartu beharreko aurreneurriak.
- Egon daitezkeen lesioen deskripzioa.
- Ebaluazioaren teknikari arduraduna.

Ebaluazioaren erregistroak langileen eta lan agintari eskudunen eskura egongo dira.

3. ARRISKUEN GAINEKO KONTROLA

3.1. ISTRIPUEN/INGURUABARREN IKERKETA

3.1.1 XEDEA

Istripuen/inguruabarren ikerketaren xedea pertsoneri lesioak eragin dizkieten gaineko informazioa eta ikerketa sistematizatzea da, hura ekarri zuten arriskuak argitzea eta beharrezko neurri zuzentzaileak zehaztea oinarrizko arrazoiak ezartzea posible izan dadin.

Ikerketen ondorioak kaltetutako langileari eta kasuan kasuko arduraduneri helaraziko zaizkie, haiek arrisku bera duten pertsona guztiei helaraz diezazkieten eta ohartarazten eta istripua/inguruabarra sortzen lagundu zuten faktore negatiboak aldatzen lagun dezaten.

3.1.2 HELMENA

GUFEn sortutako istripu guztiak ikertuko dira, bai baja ekartzen dutenak, bai horrelakorik ekartzen ez dutenak. Ikerketa kalte pertsonalak eragin ez baina eragiteko arriskua izan dutenei ere zabalduko zaie.

3.1.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

✚ Zuzendariena eta arduradunena

Ardurapean dituzten langileen istripuak egoki ikertzearen alde egingo dute, ikerketan lagunduz istripuen jatorria ezagutzeko eta, ondoren, neurri zuzentzaileak aplikatzeko.

✚ Erdi-mailako agintariak (horrelakorik dagoen zentroetan)

Hasiera batean lesioak ekarriz beren atalean gertatzen diren istripuak aztertu, jakinarazi, komunikatu eta erregistratzeko arduradunak izango dira, eta beharrezko neurriak proposatuko dituzte horien gaineko kontrol egokia ezartzeko.

✚ Langileak

Istripuen/inguruabarren ikerketan lagunduko dute, gertaeren gaineko informazioa emanaz eta horiekin uztartutako iritzi eta iradokizunak eginez.

✚ Prebentzio Zerbitzua

Istripuak jakinarazteko, komunikatzeko eta erregistratzeko prozedurak diseinatuko ditu, horiek kontrolatzeko neurri egokiak ezartzeko kasuan kasuko arduradunekin lankidetzan arituz.

GUFEn jazotako istripuen gaineko estatistika kontrola izango du.

Aldizka Mutuari eta lan agintaritzari jazotako istripuen berri emango dio, horiek baja ekarri zein ez.

Segurtasun eta Osasun Batzordeari erakundearen izandako istripu kopuruaren berri emango dio, hura kontrolatzeko proposatzen diren neurrien berri ematearekin batera.

✚ Prebentzio ordezkariak

Prebentzio Zerbitzuari lagundu egingo diote istripuak/inguruabarrak ikertzen, iradokizunak egingo dituzte egon daitezkeen neurri zuzentzaileetan eta ordezkari izategatik langilearengandik iritsiko zaion informazioa emango du.

✚ Segurtasun eta Osasun Batzordea

Langileen osasunean eta osotasun fisikoan eragindako kalteak aztertzean parte hartuko du Prebentzio Zerbitzuarekin, arrazoiak baloratzeko eta kasu bakoitzean aurreneurri egokiak proposatzeko.

Arriskuei eraginkortasunez aurrea hartzeko metodoen eta prozeduren gaineko ekimenak sustatzea, enpresari baldintzak hobetzea edo dauden gabeziak zuzentzea proposatuz.

3.1.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Istripua/inguruabarra jazo eta gero, zentroetan banatutako orri ereduak beteko da. Hura zuzendaritzak edo pertsona arduradunak prebentzio zerbitzuari helaraziko dio, gerora aztertu eta neurri zuzentzaileak proposa ditzan.

Adierazitako neurriak egoki irizitako zentroein nahiz langileei helaraziko zaizkie.

Azkenik, prozedura idatzia egingo da. Bertan, urtero, jarraian datozen estatistika datuak zehaztuko dira: gertaera indizea, maiztasun indizea, larritasun indizea eta ABEn batez besteko iraupena.

3.2 OSASUNAREN GAINEKO IKUSKAPENA

3.2.1 HELBURUA

Pertsonen gaineko osasunean ikuskapen zuzena egitea, horren bidez lanpostua pertsonari egokitzearekin zerikusia duten ondorio garrantzitsuak ateratzeko, osasunari eragiten dioten jardueretan azkartasunez jarduteko eta lanpostuetan eta/edo lan baldintzetan prebentzio eta babes neurriak sartu edo hobetzeko beharra zehazteko.

3.2.2 HELMENA

GUFek bere zerbitzuplean jarritako langile guztiei bermatuko die aldizka osasun egoera ikuskatuko dela, bakoitzaren lanari datxezkion arriskuen arabera.

Osasuna ikuskatzeak borondatez baiezkoa ematen duten enpresako langile guztiak harrapatzen ditu.

Adierazitako ikuskapena ez da borondatezkoa izango hurrengo kasuetan eta langileen ordezkarien txostena jaso ondoren:

1. Osasun azterketak egitea ezinbestekoa denean lan baldintzek langileen osasunaren gainean duten ondorioak ebaluatzeko.
2. Langilearen osasun egoera langilearentzat berarentzat, gainerako langileentzat edo beste pertsona batzuentzat arriskutsua izan daitekeen ziurtatu behar denean.
3. Lege xedapen batean horrelakorik zehaztu bada arrisku berezien babesarekin eta bereziki arriskutsuak diren jarduerekin zerikusia izanda.

3.2.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

✦ Zuzendaritza orokorrean

Bere zerbitzuplean jarritako langile guztiei bermatuko die aldizka osasun egoera ikuskatuko dela, bakoitzaren lanari datxezkion arriskuen arabera.

✦ Osasunaren Ikuskapen Zerbitzua

Arriskuen ebaluazioan oinarrituta eta Prebentzio Zerbitzuaren gainerako kideekin eta langileen ordezkariekin lankidetzan arituz, enpresako langile bakoitza zein arrisku zehatzaren pean dagoen identifikatuko dute, une oro azterketaren emaitzen sekretua eta konfidentzialtasuna mantenduz eta langilearen intimitate eta duintasun eskubidea errespetatuz.

Halaber, azterlana egingo da gaixotasunagatiko ez bertaratzeen gainean. Helburua horien eta lan baldintzen arteko edozein lotura identifikatzea da.

✚ Langilea

Konfidentziasunez lortutako emaitzen gaineko informazio guztia emango zaio. Halaber, emaitza horiek xede baztertzailaz edota langilearen kaltetan erabiliko ez direla bermatuko da.

Osasunaren Ikuskapen Unitateari edozein sintomaren berri emango dio, lan baldintzekin zerikusia duela edo lanpostuaren arriskuen sentsibilitatea aldaraz dezakeela uste badu.

Halaber, hierarkian zuzenean gaineratik duenari eta izendatutako langileei edo, horrelakorik ez badago, Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi egingo dio langileren bat bere buruarentzat nahiz hirugarren batzuentzat arriskutsu izan daitekeen egoeran edo aldi baterako egoeran dagoela nabarmenki.

3.2.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Osasuna Ikuskatzeko programaren garapena arriskuen hasierako ebaluazioan oinarrituko da, eta, aurrerantzean, aldizka egiten diren ebaluazioetan. Ez da ahaztuko babestutako biztanleriaren osasunari buruzko beharren ebaluazioa.

Haren jarduna osasun azterketatik abiatuz egingo da, langileak egiten dituen ataza zehaztetatik eta horiek ekarritako arriskuetatik abiatuz.

Osasun azterketak hurrengo uneetan egin ahalko dira: hasi baino lehen, borondatez protokoloa jarraituz, gaixotasun luze bat eta gero edo ezohiko moduan.

Osasun azterketen eta osasuna ikuskatzeko beste edozein jardueraren emaitzak taldeka eta estatistika xedeekin tratatu behar dira hori egoki irizten denean. Bestalde, erakundeak arriskuen gaineko kudeaketa zehatza egingo du sentsibilitate berezia duten langileen eta ama izan direnen kasuan.

Osasun Zerbitzuaren beste funtzio batzuk:

- Txertatze kanpainak egitea.
- Instalazioen eta lantokien osasun baldintzak ikuskatzea.
- Laneko gaixotasunen edo ohiko gaixotasunen tasei buruzko osasunaren eremuko azterlanak egitea.
- Harremana izatea kanpoko erakunde ofizialekin, mutuekin, ikuskaritzarekin...
- Langileei osasun laguntza ematea larrialdi kasuetan.

» 3.3 HIGIENE ARRISKUEN GAINEKO KONTROL ZEHATZA



3.3.1 HELBURUA

Industria higienearen gaian azterlanak egitea, laneko gaixotasunak eta langileen osasun galera saihestea posible izan dadin.

3.3.2 HELMENA

Arriskua duen lanpostu bakoitzaren ingurumenari aplikatuko zaizkio. Azter daitezkeen parametroak fisikoak (tenperatura, hezetasuna, zarata, argia, eta abar) nahiz kimikoak (hautsak, gasak, lurrikak...) edo biologikoak (bakteriak, birusak...) dira.

3.3.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Zuzendari eta arduradunena

Azterlan horiek egiteko beharra zehaztuko dute, beren agintaritzapean egiten diren lanen ezaugarri zehatzen arabera.

Idatziz azterlan horiek egitea eskatu beharko da, beren zerbitzuko pertsonaren batentzat baldintza kaltegarriak daudela sumatzen denean.

Prebentzio Zerbitzuarena

Azterlan zehatzak egitea behar duten egoerak zehaztuko ditu.

Egin beharreko azterlan mota definituko du jasotako informazioaren arabera. Halaber, nork eta noiz egin behar duen eta horien aldizkakotasuna zehaztuko ditu.

3.3.4 EDUKIA ETA GARAPENA

GUFEn lan inguruneen baldintzak hobetu nahi ditu, kutsatzaile kimikoak, agente fisiko eta biologikoak ebaluatuz, eta kasuan kasuko gomendio egokiak eginez horietatik eratorritako arriskuak kontrolatze aldera.

Horretarako, laginak hartzeko, analisiak egiteko eta kutsatzaileen balorazioak egiteko giza baliabideak eta baliabide teknikoak dituen kanpoko zerbitzu kreditatu baten laguntza eska daiteke.

Egin beharreko azterlanak aldizkakoak eta/edo une zehaztutakoak izango dira, lege behar edo irizpideen arabera edo arriskuen ebaluazioak horrelakorik zehazten duenean.

3.4 ARRISKU ERGONOMIKOEN ETA PSIKOSOZIALEN GAINEKO KONTROL ZEHATZA

3.4.1 HELBURUA

Ergonomiaren eta Psikosoziologiaren eremuan azterlanak egitea, lan baldintzak hobetzeko alde fisiko, psikiko eta sozialean.

3.4.2 HELMENA

Arriskua sumatu den lanpostu guztiak.

3.4.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Zuzendariak

Azterlan horiek egiteko beharra zehaztuko dute, beren agintaritzapean egiten diren lanen ezaugarri zehatzen arabera.

Prebentzio Zerbitzua

Azterlan zehatzak egitea behar duten egoerak zehaztuko ditu. Sumatutako beharren eta jasotako informazioaren arabera egin beharreko azterlan mota definituko du. Halaber, azterlana nork, noiz eta zein aldizkakotasunarekin egin behar den zehaztuko du.

3.4.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Ergonomiaren xedea laneko tokia lan jakin bat garatzen duen pertsonari egokitzea da eta Psikosoziologiaren helburua GUFEn barruan pertsonen arteko harremani eragiten dieten, buru karga eta nerbio nekea sortzen eta osasuna eta oreka psikikoa arriskuan jartzen duten faktoreak identifikatzea da.

Aurrekoa kontuan hartuta, azterlanak aldizka eta/edo une zehazetan egiten dira, sumatutako beharren arabera edo lege irizpideek eta/edo Arriskuen ebaluazioak zehazten dutenaren arabera.

3.5 SUMATUTAKO ARRISKUEN JAKINARAZPENA

3.5.1 HELBURUA

Langileek arriskua dagoela adierazteko, eta, egoki irizten bada, neurri zuzentzaileak proposatzeko duten eskubidea bermatuko duen komunikazio sistema ezartzea.

3.5.2 HELMENA

Entitatearen sail guztietan aplikatu beharrekoa da, hierarkiaren lerro osoan, eta laneko arrisku mota eta multzo guztiak harrapatuko ditu.

3.5.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

✦ Zuzendariak eta erdi-mailako agintariak

Langileen partetik arriskua egotearen jakinarazpena jasoko duten lehenengoak izango dira, eta, haiekin batera, proposamen zuzentzaileak egingo dituzte eta gauzatzeaz arduratu hierarkian zuzenean gainetik duenari jakinarazi izan eta gero. Ondoren, Prebentzio Zerbitzuari jakinaraziko diote.

✦ Langileria

Lantokian ager daitekeen edozein egoera arriskutsu zuzeneko nagusiari jakinarazteko betebeharra du, sumatutako arazoarentzako neurri zuzentzaileak proposatzearekin batera laneko arriskuei aurrea hartzeko prestakuntza badu edo sen onak zer edo zer zehazten badu.

✦ Prebentzio ordezkariak

Langileen partetik arriskuren bat dagoela jakitean, albait lasterren emango diote jakindakoaren berri Prebentzio Zerbitzuari. Halaber, eraginkorrenzat jotako neurri zuzentzaileak proposatuko dituzte.

3.5.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Gizarte Urgazpeneko Foru Erakundeko langile guztiak behartuta daude beren ustez langileen osasun eta segurtasunari arriskua ekartzen dion edozein inguruabar jakinaraztera.

GUFek langileek hobekuntza proposamenak egiteko duten eskubidea bermatuko du segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten gaitan. Horretarako, informazioa errazteko komunikazio bideak ezarrita geratuko dira:

1. Arriskuren bat sumatzen den unean, nagusiari jakinaraziko zaio berehala. Hark idatziz jasoko du jakinarazi diotena eta zentroaren zuzendaritzari bidaliko dio, eta, handik, kopia bat bidaliko zaio Prebentzio Zerbitzuari.

Osasun konturen bat balitz, langileak zuzenean joko luke lan medikuntzako zerbitzuarengana.

2. Kasu garrantzitsuetan, informazioa Segurtasun eta Osasun Batzordeari aurkeztuko zaio.

3.6. » NEURRI ZUZENTZAILEEN JARRAIPENA ETA KONTROLA



3.6.1 HELBURUA

GUFek egindako Arriskuen Kudeaketa orokorreko prozesuan ezarritako edo laneko eremuetan egindako arriskuen ebaluazioan edo istripuen ikerketan zehaztutako neurri zuzentzaileen gaineko jarraipena eta kontrola ezartzea.

3.6.2 HELMENA

Kontrola aurreneurri guztietan proposatu eta onartu diren neurri zuzentzaile guztiei luzatzen zaie, mota materialekoak, antolamendukoak, prestakuntzakoak, eta abar izan alde batera utzita.

Arreta handiagoa jarriko da arriskuaren arabera lehentasunezkoetat jo diren neurri zuzentzaileetan.

3.6.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Zuzendariak eta arduradunak

Edozein aurreneurritan onartu diren neurri zuzentzaileak ezarri direla eta eraginkorrak direla ziurtatzeaz arduratuko da, beste ezeren aurretik arriskuaren arabera lehentasunezkoetat jotako neurri zuzentzaileak aintzat hartuz.

Prebentzio Zerbitzua

Aurrekoengandik informazioa jasoko du, eta neurri zuzentzaileen, eta, orokorrean, proposatu eta onartu egin diren hobekuntzen gaineko jarraipena egingo du. Informazioa prebentzio ordezkarietara ere helaraziko die.

3.6.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Bi helburu nagusi lortu nahi dira:

- * Neurri zuzentzaileak Prebentzio Zerbitzuak aurreikusitako epeetan ezartzen direla kontrolatzea.
- * Adierazitako neurri zuzentzaile horien eraginkortasuna ziurtatzea.

4. AURRENEURRIAK HARTZEKO JARDUERA ZEHATZAK

4.1 PROIEKTU BERRIAK eta INSTALAZIOEN, PROZESUEN, EKIPOEN edo SUBSTANTZIEN ALDARAZPENAK

4.1.1 HELBURUA

Aurreneurriak proiektu berrien diseinuan eta instalazioen, prozesuen edo substantzien aldarazpenetan sartzea, segurtasunaren eta osasunaren alorreko alde garrantzitsu guztiak kontuan hartuz. Horrela, jazo daitezkeen egoera guztietan arriskuak kontrolpean izango dira eta, inolaz ere, ez da dagoen arrisku maila areagotuko.

4.1.2 HELMENA

Atal honen barruan sartzen dira entitatean ezarri beharreko proiektu berriak nahiz jada existitzen diren instalazioetan sartu beharreko aldaketak eta aldarazpenak, langileen Segurtasuna eta Osasuna nabarmenki kalte badezakete.

4.1.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Zuzendariak eta arduradunak

Kasuan kasuko zentroan instalazio, ekipo edo substantzia berrien proiektuak edo jada existitzen direnen aldarazpenak onartzen direnean, horiek langileen segurtasun eta osasunerako ondorio kaltegarriak ez izatea bermatuko dute eta horren alde egingo.

Halaber, instalazio berriak edo jada daudenen aldarazpenak berriro diseinatzeko proiektuak garatu eta ezartzeko ardura duten diseinatzaile eta arduradunek, orokorrean, segurtasunaren eta osasunaren alorreko lege xedapenak kontuan izatearen erantzukizuna izango dute. Bertan sartuko dira ergonomia eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko industria segurtasunaren arauketa teknikoak.

Prebentzio Zerbitzua

Zuzendarien partetik proiektu berrien eta aldarazpenen gaineko informazioa jaso beharko du, entitateko langileen segurtasunari eta osasunari eragin diezaioketen antolamenduko alde materialen inguruan.

Pertsonen Segurtasun eta Osasunerako kaltea ekartzen duten aldaketak ez onartzeko eskumena ere izango du.

Segurtasunaren eta osasunaren alorrean langileen lan baldintzak aldatzeak izan ditzakeen eragin positibo eta negatiboei buruzko aholkularitza eman behar du.

Prebentzio ordezkariak

Entitateko langileen Segurtasunean eta Osasunean eragin kaltegarriak izan ditzaketen proiektu edo aldarazpenak aplikatuko direla jakinaraziko zaie.

Ados ez badago, Laneko Arriskueta Aurrea Hartzeko 31/1995 Legeak ezarritako epea du, 15 egunekoa hain zuzen, kasuan kasuko txostena egiteko.

4.1.4 EDUKIA

Aurreneurriak instalazioak, prozesuak eta substantziak diseinatzeko fasean edo jada existitzen direnetan edozein aldarazpen edo aldaketa egin aurretik sartzeak ustiapen fasean laneko arriskuak agertzea ekiditen du.

Diseinu fasean ezarritako aurreneurriek aukera ematen dute beharrezko neurriak hartzeko kasuan kasuko proiektua gauzatu aurretik. Horrela, aurrea hartuko zaio arriskuari eta langileei kalteak ekiditeko aurreragoko zuzenketak saihestuko dira.

4.2 MAKINEN, EKIPOEN eta/edo SUBSTANTZIEN EROSKETA

4.2.1. HELBURUA

Erosketa prozeduran erosten diren substantziak, makinak eta laneko ekipoak seguruak direla bermatzeko jarraibideak sartzea. Halaber, egin beharreko lanari egokitu behar zaizkio eta behar bezala egokiturik egon beharko dira ere erabiliko dituzten pertsonen.

4.2.2. HELMENA

Atal honen aplikazio eremuaren barruan sartzen dira laneko ekipoak. Horien barruan lana egiten den bitartean erabiltzen den edozein makina, gailu, tresna, baliabide material edo instalazio dagoela ulertuko da, eskuratzen diren produktu kimikoak edo atazak egiteko erabili beharrekoak bezalaxe.

4.2.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Zuzendariak/arduradunak

Zentrorako eskuratzen diren makinak, laneko ekipoak eta produktu kimikoak kasu bakoitzean eskatutako lege arautegiaren barruan daudela ziurtatuko dute.

Erosten diren ekipo eta makinak homologaturik daudela eta "CE" adostasun ziurtagiriak eta erabili eta mantentzeko jarraibideak dituztela egiaztatuko dute.

Halaber, eskuratutako produktu kimikoek etiketa egokia eta dagokion segurtasun fitxa dutela egiaztatu beharko dute.

Atazetan, babes baliabideetan eta/edo erabileraren gaineko ezagutzetan aldaketa behar duten erositako gaien kasuan, Prebentzio Zerbitzuari emango zaio horren berri aldezturik.

Erdi-mailako agintariak edo arduradunak

Laneko ekipo edo makina berria eskuratzeko beharra sumatzen denean, garatu beharreko lanerako segurtasun eta eraginkortasun handienekoa aukeratu edo erostea gomendatuko dute homologatutakoen artean.

Halaber, produktu berri bat erostea beharrezkoa balitz, egin beharreko lanerako eraginkorra izanda langileen segurtasunari eraso gutxien egiten diona aukeratuko da.

Prebentzio eta Laneko Arriskuen Zerbitzua

Fabrikatzaileei, inportatzaileei eta hornitzaileei makineriaren, ekipoen eta laneko tresnen gainean eskatu beharreko dokumentazioaren gaineko aholkularitza emango du, entitatean erosten diren ekipo edo produktu kimikoek segurtasunean, osasunean eta ergonomian izan ditzaketen eraginen berri ematearekin batera. Gainera, substantzia edo ekipo bat erosteari ezezkoa eman diezaioke pertsonarentzat ondorio kaltegarriak baditu (arriskua osotasun fisikorako edo osasunerako).

4.2.4 EDUKIA

Ekipoek segurtasun eta osasun baldintza batzuk bete beharko dituzte, kasu bakoitzean aplikatu beharreko arautegiari jarraiki.

Adierazitako baldintza hori bete behar izateaz gain, ekipoak lanpostu bakoitzerako seguruena eta egokiena izateko moduan aukeratu beharko dira. Seguruak ez dira bakarrik erabiltzerakoan izan behar, baita bizitza erabilgarri osoan ere, hau da, mantentze-lanetan, garbitasunean, biltegitratzean, garraioan, martxan jartzean eta desmuntatzerakoan. Azken fase horretan, kontuan izango dira hondakinek ingurumenarengan dituzten ondorioak.

Lanerako ekipoa aukeratzekoan, kontuan izan beharko dira lanpostu bakoitzaren baldintzak eta ezaugarri zehatzak.

Produktu kimikoak erosten direnean, horiek erabili behar dituzten pertsonen segurtasun eta osasunerako kalte gutxien ekartzen dutenak aukeratu dira.

Ondorioz, arrisku berriak agertzea ekarriko ez duten produktu kimikoak eta laneko ekipoak aukeratu dira, eta, hori posible ez balitz, neurri egokiak jarriko lirateke arrisku horiek ahalik eta gehien gutxitu edo minimizatzeko.

4.3 LANEN, PERTSONEN eta EKIPOEN KONTRATAZIOA, BIRKONTRATAZIOA

4.3.1 HELBURUA

GUFek kanpoko enpresek edo pertsonen egindako lan edo zerbitzuak indarreko legeriak eta entitateak berak ezarritako segurtasun eta osasun neurriekin bat etorritzen direla bermatzearen alde egingo du.

4.3.2 HELMENA

GUFentzat lan edo zerbitzuren bat egiten duen sail eta/edo kontratatzen diren, birkontratatu diren edo autonomoak diren langile guztiei aplikatu zaie. Halaber, kanpoko langileak, aldi baterako kanpoko enpresa batean lanean dihardutenak edo modu iraunkorrean ari direnak, praktikan dabilzanak eta prestakuntza aldikoak sartuko dira.

4.3.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

✦ Zuzendariak eta/edo arduradunak

Kanpoko langileek Laneko Arriskueta Aurrea Hartzeko arautegia betetzea bultzatuko dute eta betetzearen alde egingo.

Kanpoko entitateari informazio eta jarraibide egokiak emango zaizkio, larrialdiren bat jasotzen den kasuan hartu beharreko aurreneurriak eta babes neurriak eta izan beharreko jardunarekin batera (171/04 ED, 3. kapituluak, 7.1 art.).

Kanpotik kontratatzen diren pertsonen enpresaren partetik edo zuzenean Zerbitzuko pertsonen partetik adierazitako informazioa jasotzen dutela bermatuko da, eta jasotako informazioa zehazten duen papera sinatzea eskatuko zaie langile horiei (171/04 EDa, 2. kapituluak, 4.5 art.).

✦ Erdi-mailako agintariak

Kanpoko langileek egindako obra edo zerbitzuak sustatzen dituzten arduradunek informazioa eskuratuko dute bete beharreko segurtasunaren eta osasunaren eremuko eskakizun eta araudiaren gainean.

Egiten diren kontratueta derrigorrez bete beharreko (kontratatueta enpresaren partetik) klausulak agertzen direla ziurtatu beharko dute. Klausula horiek indarreko segurtasun eta osasun araei buruzkoak nahiz entitateak bere baitan berezkoak dituenak izango dira.

✦ Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzua

Laneko Arriskuei Aurrea Hartzearen eremuan bete beharreko lege aldeei eta arautegiari buruzko aholkularitza emango du. Segurtasun eta osasuneko arau orokorrak ezarriko ditu GUFEn.

✦ Kanpoko langileria

Kapitulu honen aplikazio eremuan sartutako eta entitatearentzat lanak edo zerbitzuak egiten dituzten kanpoko langile guztiek segurtasunaren eta osasunaren eremuan aplika daitekeen arautegia bete beharko dute, GUFekoa bertakoa bezalaxe.

4.3.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Kanpoko langileek GUFeko langileen segurtasun eta osasun berme berdinak izango dituzte. Hori dela eta, indarreko legerian ezarritako segurtasun eta osasun arauak, langilearen enpresarenak berarenak eta GUFerenak, kontratatzen duen enpresa den heinean, bete beharko ditu.

Adierazi berri denaren ondorioz, GUFek gutxieneko betekizun batzuk eskatuko dizkiete kontratista eta langileei. Horien bidez segurtasunaren eta osasunaren eremuko betebeharrak, arriskuen ebaluaziokoak, segurtasun planak –horrelakorik egoki irizten bada– betetzen direla bermatuko beharko da. Halaber, entitatearentzat zerbitzuak garatuko dituzten langileentzat segurtasunaren alorreko beharrezko prestakuntza bermatu beharko da (171/2004 EDa).

Enpresei ez zaizkie kontratuak esleituko aldez aurretik indarreko legeriak eta barne arautegi propioak zehaztutako segurtasun eta osasunaren alorreko betekizunak betetzera makurtzen ez badira.

4.4 PREBENTZIOKO MANTENTZE-LANAK

4.4.1 HELBURUA

Ekipo eta instalazioen bitzta erabilgarria luzatzea, hasierako segurtasun baldintzak kontserbatu eta/edo hobetuz, eta, ondorioz, horien egoera eskasagatik edo behar ez bezalako funtzionamenduagatik eragindako istripuak gutxituz.

4.4.2 HELMENA

Atal hau GUFEn Sail guztiek zuzenean kudeatzen dituzten ekipo eta/edo instalazio guztiei aplikatzen zaie.

4.4.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

✦ Zuzendariak eta/edo arduradunak

Aldizka ikuskapenak eta kasuan kasuko sailaren menpeko zentro ezberdinetako ekipo eta instalazio orokorren konponketak egiten direla bermatzen duten prebentzioko mantentze-lanen programa diseinatuko dute, eta hura betetzearen alde egingo.

Programa hori Mantentze-lanen buruarekin koordinatuz egingo litzateke, horrelakorik legokeen kasuan.

✦ Erdi-mailako agintariak

Ardurapean dituzten ekipo/instalazioen prebentziozko mantentze-lanen programa ezarriko dute, ekipoak egoera onean egotearen alde egingez eta mantentze-lanetako jarduerak alde zuzenetik ezarri denarekin bat etorritik garatzen direla ziurtatuz.

✦ Langileria

Makinerian, ekipoetan edo erabiltzen diren instalazioetan akats edo matxura arrastoa sumatzen duen edozein langilek horren berri eman beharko dio hierarkian zuzenean gainetik duenari.

3.4.4 EDUKIA ETA GARAPENA

GUFek, zentro bakoitzean, prebentziozko mantentze programak egingo ditu, instalazioen arriskuarekin eta horien erabilerarekin bat etorritik. Ekipoen eskuliburuetan fabrikatzaileek erantsi dituzten mantentze jarraibideak jarraituko dira eta fabrikatzaileak zehaztutako kontrol aldizkakotasuna jarraituko da, zentro bakoitzak ezarritako kontrolak egitearen kaltetan izan gabe.

» Erdi-mailako agintariek mantentze-lanak behar bezala egitearen alde egingo dute, mantentze-lanak egokiak direla bermatzeko eta, horren bidez, ataza horiek egiten dituzten langileen arriskuak gutxitzeko.

«4.5 LAN PROZEDURAK

4.5.1 HELBURUA

Existitzen diren Aurreneurrien barne arautegi mota ezberdinak zehaztea, adierazitako arau horiek lantzeko, berrikusteko eta argitaratzeko prozedurak bezalaxe.

4.5.2 HELMENA

Kritikotzat jotzen diren jarduera horiek guztiak, bai konplexuak eta zailak izateagatik, bai gaizki egiteagatik edo kasuan kasuko jarduera ez egitea saihestegatik segurtasunean eragin nabarmenak izan ditzakeelako, langileen eta/edo instalazioen segurtasuna eta osasuna kaltetuz.

4.5.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

✦ Zuzendariak

Lanerako jarraibideak lantzearen ardura kasuan kasuko *zuzendari/nagusiarena* izan beharko litzateke, hark jardueren eta laneko ingurunearen gaineko ezagutza egokia izan behar baitu. Hala eta guztiz ere, arduradunak funtzio hori espezialista zehatzen eskuetan utz dezake, laneko jarraibideak konplexuak izateagatik ezagutza espezializatuak behar badira.

✦ Zuzeneko agintariak

Zuzeneko agintariak ere beren eremuko jarraibideak banatu eta helarazteko ardura dute, horiek oinarritzko dokumentu bezala erabiliz lanpostuaren gaineko prestakuntza zehatzean. Halaber, adierazitakoa behar bezala betetzearen alde egin beharko du, eguneratze eta hobekuntza beharrak sumatuz. Laneko jarraibideen beharrak identifikatu egin beharko ditu ere.

✦ Langileria

Langileek laneko jarraibideetan adierazitakoa bete beharko dute, zuzenean gainera dutenari horien aplikazioan sumatutako gabeziak edo akatsak jakinaraziz. Zehazten diren langileek parte hartuko dute laneko jarraibideak landu eta/edo berrikustean.

✦ Prebentzio ordezkariak

Prebentzio ordezkariak lan kritikoen jakinaren gainean egongo dira, indarreko lan jarraibideen eta lantzen ari direnen jakinaren gainean egongo diren bezalaxe. Jarraibideak onartu aurretik, kontsultatu egingo zaie.

✦ Prebentzio Zerbitzua

Prebentzio Zerbitzuak laneko osasunarekin zerikusi zuzena duten prozedurak landuko ditu, arriskuen ebaluazioaren ondotik aldatzea beharrezkoa den horiekin batera.

4.5.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Xehatu beharreko jarduerak eta/edo atazak zehaztu ondoren, horiek aplikatzeko jarraibideak planifikatuko dira eta ondoren jarraibideetan idatzi beharko diren atazak aztertuko dira. Behin prozesua amaituta, langileen artean banatu eta barreiatuko da.

4.6 SEGURTASUNA HONDAKINEN KUDEAKETAN

4.6.1 HELBURUA

Hondakinak nola tratatzen eta deuseztatzen diren kontrolatzea, GUFek kudeatzen dituen zentro ezberdinetako langileentzat arriskutsua izan ez dadin, ez herri langileentzat, ez ingurumenarentzat orokorrean.

Lehentasuna emango zaio hondakinen sorrera gutxitzeari nahiz taldeka sailkatzeari ondoren birziklatzea posible izateko.

4.6.2 HELMENA

GUFeko zentro bakoitzeko sail ezberdinetan sortutako edozein motatako hondakinak harrapatuko dira, hurrengoetan sailkatuta:

- Ontzien hondakinak
- Osasun zerbitzuen hondakinak, jarraian zehaztuko den moduan sailkatuta:

I. TALDEA: Hiri hondakin berdinesgarriak (II. eta III. taldeetan sartzen ez direnak).

- Osasun hondakin ez zehatzak; infekzioei aurre egiteko jaso eta deuseztapen betekizun berezien xede ez diren hondakinak (*sendaketetako gazak, torundak, kutsatu gabeko gaixoetatik eratorritako material klinikoa*).
- Sukalde eta elikagaien hondakinak
- Olio mineralak
- Papera
- Kartoia
- Bulegoko materiala (TONER)
- Beste batzuk...

II. TALDEA: Osasun hondakin zehatzak

- Objektu ebakigarriak eta zorrotzak
- Infekzioei aurrea hartzeko bildu eta deuseztatzerakoan betekizun berezien xede diren hondakinak. (*Sendaketako gazak, torundak, material klinikoa: infektatutako gaixoetatik eratorritakoak*).

4.6.3 ERANTZUKIZUNAK

✦ Prebentzio Zerbitzua

Gidalerroak ezarriko ditu GUFeko zentro ezberdinetako sailek sortutako hondakinak tratatu eta deuseztatzeko, indarreko legeriak ezartzen duena gorabehera.

✚ Langileria

Sortzen dituzten hondakinak haien eskura jarritako edukiontzi egokietan jarriko dituzte, hondakin motaren arabera.

4.6.4 GARAPENA ETA EDUKIA

Hondakinak, eta, batez ere, osasunaren eremuko hondakinak, arriskutsuak dira entitateko langileentzat, beste hainbat patologiaren artean lesioak eta infekzioak sortzearen arrazoi izan baitaitezke. Hori da egoitza ezberdinetan ematen zaien tratamendua eta deuseztapena hain garrantzitsua izatearen arrazoia.

Halaber, ingurumena kutsatzeko arriskua izan daiteke (baliabide naturalak degradatuz) eta osasun publikorako arriskutsua izatekoa. Hori dela eta, beharrezkoa da horiei guztiei tratamendu egokia ematea.

Hondakinak moten arabera sailkatuko dira. Horretarako, edukiontzi egokiak jarriko dira eta hondakinak modu egokienean sailkatu eta deuseztatuko dira, erabileran izan daitezkeen arriskuak kontrolatuz.

4.7 EZAUGARRI BEREZIAK DITUZTEN LANGILEEN BABESA

4.7.1 Arrisku jakin batzuetara bereziki sentikorrak diren langileen babesa

Arriskuen ebaluazioek aintzat hartzen dituzte zehazki arrisku jakin batzuetara bereziki sentikorrak diren langileak, eta, horien arabera, beharrezko aurreneurriak eta babes neurriak hartzen dira.

GUFek zehazki bermatuko du ezaugarri pertsonal propioengatik edo egoera biologiko ezagunagatik (ezintasun fisikoa, psikikoa edo zentzumenekoa onartuta dutenak barne) lanetik eratorritako arriskueta bereziki sentikorrak diren langileak babestu egingo direla.

Ezaugarri pertsonalengatik, egoera biologikoagatik edo behar bezala onartutako ezintasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoagatik beren buruak, gainerako langileenak edo enpresarekin uztartutako beste langile batzuen arriskuan jartzea ekar dezaketen lanpostuetan ez dira langile horiek jarriko, ezta, orokorrean, kasuan kasuko lanpostuetako eskakizun psikofisikoekin bat ez datozen egoeran edo aldi baterako egoeran daudenean langileak.

Halaber, GUFek kontuan izango ditu langileen ugalketa funtzioan eragina izan dezaketen arrisku faktoreak, bereziki agente fisiko, kimiko, biologiko eta ergonomikoekin aritzean ugalketan sor daitezkeen mutazioak edo toxikotasunak egongo lirateke. Eraginak ernalkortasunean nahiz ondorengo garapenean aztertuko lirateke, kasuan kasuko beharrezko neurriak hartze aldera.

4.7.2 Amatasunaren babesa

Arriskuen gaineko ebaluazioek kontuan izango dituzte haurdun edo duela gutxi erditutako egoeran dauden langileek osasunaren edo haurrenarenean kaltetarako izan daitezkeen agente, prozedura edo lan baldintzen aurrean egiten duten denbora, horien izaera eta maila. Azterketa Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Legearen 26. artikularen arabera arrisku zehatza ager dezakeen edozein jardueran egingo da.

Xede horretarako Amatasun Batzordea sortu da GUFEn, *lanpostuaren Arriskuen Ebaluazioei* erantzuna emateko. Batzordea haurdun dauden langileen laneko egoera eta lan baldintzak banaka aztertzeaz arduratuko da.

5. INFORMAZIOA eta PRESTAKUNTZA

5.1 INFORMAZIOA

5.1.1 HELBURUA

GUFeko langile guztiei behar duten informazio guztia bermatzea laneko arriskuei aurrea hartzearen eremuan, aldi baterako daudenak edo ordezkapenak egiten dabiltzanak barne.

5.1.2 HELMENA

GUFeko langile guztiei zera jakinarazi behar zaie, zuzenean edo ordezkari sindikalen bitartez:

- Langileei eragiten dieten lanpostuko arrisku orokorrak eta zehatzak, eta horiei aurre egiteko hartu diren babes neurriak eta aurreneurriak.
- Enpresan, aurreneurrien eremuan, egiten diren jarduerak.
- Lehen sorospenen eremuan, suteen aurka egiteko eta hustuketak errazteko hartu diren neurriak.

5.1.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Zuzendariak eta/edo arduradunak

Zuzendariak eta/edo arduradunak izango dira kasuan kasuko saileko langileei aurreneurrien gaineko informazioa iristen zaiela bermatuko dutenak.

Erdi-mailako agintariak

Zuzeneko agintariak izango dira ardurapean dituzten langileei beharrezko informazioa helarazteko ardura izango dutenak. Horrela, lanak egoki eta segurtasunez egingo dira.

Langileria

Langileek eskubidea dute aurre egin beharreko laneko arriskuen berri izateko. Horretarako, enpresako arrisku orokorren prebentzio ordezkarien bitartez informatu ahalko dira. Edonola ere, langile bakoitzari zuzeneko informazioa emango zaio bere lanpostu edo funtzioari eragiten dioten arrisku zehatzen eta arrisku horiei aplikatu dakizkien babes neurri eta aurreneurrien gainean.

Prebentzio Zerbitzua

Prebentzio Zerbitzuak arriskuei aurrea hartzeari buruzko informazioa bideratu eta koordinatu beharko du GUFeko zentro guztiei iristeko.

Zentro edo kontratu mota nahiz horren iraupenak ez du GUFEn salbuesten informazioa emateko betebeharririk.

Bestalde, arriskuen ebaluazioak egiteko arduradunek erakundea informatu beharko dute lanpostu bakoitzean identifikatutako arriskuen gainean.

5.1.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Informazioa ahozkoa izan daiteke, arinagoa, pertsonalizatuagoa eta argiagoa izaten delako. Hala eta guztiz ere, informazio hori askotan idatziz emango da, alde kritikoetan arreta eta indarra jarriz. Horretarako, triptikoak, kartelak, barne jakinarazpenak edo egoki irizten den beste edozein metodo erabiliko da, ikusteko moduko eta langileak iris daitezkeen tokietan jarriz horiek guztiak. Halaber, horiek eskura eman ahalko dira banaka nahiz taldeka, nagusien, koordinatzaileen, ordezkarien edo prebentzioko teknikarien bitartez.

Kasuan kasuko entitatearen produktu kimikoen segurtasuneko informazio fitxak emango dira, kontuan izan beharreko aurreneurrien alde ezberdinak eta/edo larrialdiko neurriak kontuan hartuz.

5.2 PRESTAKUNTZA

5.2.1 HELBURUA

Langile guztiak behar adinako prestakuntza teoriko eta praktiko egokia jasotzea aurreneurrien alorrean.

5.2.2 HELMENA

Enpresako langile guztiak: zuzendariek, teknikariek, erdi-mailako agintariek eta langileek orokorrean prestakuntza jaso beharko dute prebentzioaren alorrean, bakoitzak bere lan jardueren arabera eta kontratu eredua edo haren iraupena alde batera utzita.

5.2.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

✦ Zuzendaritza

Enpresaren *zuzendaritzak* langile guztiak beren funtzioen gaineko prestakuntza egokia izatea bermatzeaz arduratu behar du. Laneko arriskuei aurrea hartzeko prestakuntza plana ezarriko da, erakunde guztia harrapatuz eta lorpenerako baliabideak eta denbora jarritz.

✦ Zuzendariak eta/edo arduradunak

Zuzendariak eta/edo arduradunak izango dira kasuan kasuko saileko eta beren ardurapeko langileei aurreneurrien gaineko informazioa iristen zaiela bermatuko dutenak.

✦ Zuzeneko agintariak

Zuzeneko agintariak izango dira beren ardurapeko langileei prestakuntzarekin uztartutako informazioa jakinarazteko ardura izango dutenak, plantila osoari prestakuntza ikastaroen berri emanez haien kontratu mota zein den alde batera utzita. Langile bakoitzaren lanaren edo funtzioaren gaineko prestakuntza zehatza *zuzeneko agintariak* egitea komeni da, enpresaren barruko edo kanpoko langileen laguntza eta aholkularitza jasoz horrelakorik behar denean.

✦ Langileria

Langileria segurtasunaren eremuan ematen den prestakuntzara bertaratu eta hartan parte hartu beharko du.

✚ Prebentzio Zerbitzua

Laneko arriskuei aurrea hartzeko gaiko izaera orokorreko prestakuntza, hasiera batean, *Prebentzio Zerbitzuak* eskainiko du zehazki jarduera honetarako. Kanpoko Prebentzio Zerbitzuen laguntza eskuratu ahalko da, beharrezkotzat jotzen denean.

Kasuan kasuko erakundearen prestakuntza plana eta programak langileekin edo haien ordezkariekin kontsultatuko dira.

5.2.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Prestakuntza aurrea hartzeko oinarrizko teknika bat da, eta haren xedea langileen gaitasunak eta ahalmenak garatzea da egokitzen zaizkien lanak egoki egin ahal izateko. Xedea eskura dauden baliabideak hobeki aprobetxatzen saiatzea da ezagutzak eta gaitasunak eskuratuz, eta, orokorrean, ahalik eta eraginkortasun eta segurtasun handiena lortzea lanean.

Prestakuntza, legeriak ezartzen duen moduan, lansaioaren barruan eskainiko da, edo, hori posible ez balitz, beste ordu batzuetan baina kasu bakoitzean behar den ordainsaria jasota. Izan ere, lan jardueraren beraren parte izan beharko luke benetan.

Arriskuei aurrea hartzeko prestakuntzaren edukia eta ikuspegia nori zuzentzen zaionaren arabera izango da. Prebentzioaren eremuko prestakuntzak Erakundeko kide guztiei eragin behar die. Prestakuntzak bat etorri beharko du aurreneurrien eremuan dituen erantzukizunekin.

Prestakuntza arriskuen hasierako ebaluazioaren emaitzaren eta sumatutako beharren arabera planifikatuko da. Aldi berean, garatutako prestakuntza jarduera ebaluatzeke sistema izan behar da.

Erakundearen beharren arabera Prestakuntza Plana izango da, eta haren eraginkortasuna kontrolatuko da.

- *Hasierako prebentzio prestakuntza*
- *Lanpostuaren gaineko prebentzio prestakuntza zehatza*
- *Langileak betetako funtzioetan edo lantaldeetan aldaketak izateagatik etorritako prestakuntza.*

Prestakuntza programa guztia behar bezala dokumentatuta geratuko da: datak, nor bertaratzen den, iraupena, edukiak eta emaitzak. Emaitza horiek artxibatu eta erregistratu egingo dira.

6. AURRENEURRIEN GAINEKO ARAU OROKORRAK

6.1 NORBERA BABESTEKO EKIPOAK eta LANEKO JANZKIAK

6.1.1 HELBURUA

Norbera Babesteko Ekipoak (NBE) eta laneko janzkiak aukeratzeko, hornitzeko eta mantentzeko metodoa ezartzea.

Enpresaren lanpostuetan derrigorrez edo gomendioaren ondotik erabili behar diren Norbera Babesteko Ekipoak definitzea.

6.1.2 HELMENA

Saihestu edo baliabide teknikoan, metodoan edo laneko prozeduren bitartez behar beste mugatu ahal ezin izan den arriskuagatik kalteturiko pertsonak.

GUFEn lan egiten duten pertsona guztiak harrapatzen ditu, horiek plantilakoak izan zein hierarkian edozein postu, kontratu mota edo kontratetako langile izan.

Halaber, prozedura bisitei aplikatuko zaie inguruabar berdinen kalteak jasotzeko arriskua badute.

Prozedura honen helmenaren barruan sartzen da langileak erabili edo eutsi beharreko edozein ekipo edo laneko janzki, bere segurtasuna edo osasuna mehatxa dezakeen arrisku bati edo bat baino gehiagori aurre egiteko denean. Halaber, adierazitako xederako erabilitako edozein osagarri edo elementu kontuan hartzen da.

6.1.3 DEFINIZIOAK

Norbera Babesteko Ekipoak (NBE): langileak eraman edo eutsi beharreko edozein ekipo bere segurtasuna edo osasuna mehatxa dezakeen arrisku batetik edo bat baino gehiagotik babesteko lanean, nahiz xede horretarako erabil dezakeen edozein osagai edo elementu.

6.1.4 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Erdi-mailako agintariak

Erdi-mailako agintariak modu aktiboan laguntzen diote Prebentzio Zerbitzuari Norbera Babesteko Ekipoak erabili behar diren lanpostuak ebaluatzeko garaian. Halaber, ardurapean dituzten langileei Norbera Babesteko Ekipoen erabilera zuzenaren, mantentzearen eta akatsak edo hondamena agerian duten horiek ordezkatzeko moduaren berri ematen diete.

✚ Langileria

Langileriak Norbera Babesteko Ekipoak egoki erabili eta zaintzeko ardura du. Halaber, NBEa erabili eta gero gordelekutzat zehaztutako tokian uzteko betebeharra dute.

6.1.5 EDUKIA ETA GARAPENA

Norbera Babesteko Ekipoak erabiltzea arrisku zehatzei aurre egiteko hartu beharreko azken baliabidea da, eta arriskuei aurrea hartzeko dauden gainerako bide guztiak agortu direnean bakarrik erabili beharko dira, hau da, taldeko babeserako baliabide teknikoen edo lanaren antolamenduaren neurri, metodo edo prozeduren bitartez arriskua saihestu edo behar beste mugatu ezin izan den kasuetan.

6.2 LARRIALDI PLANA

6.2.1 HELBURUA

» Larrialdi egoerek lan zentro guztietako funtzionamendu normala aztoratzen dutenez, zentroko langileei orientazio orokorra emateko helburuarekin landuko dira larrialdi egoeraren bat jazo daitekeela aurreikusiz. Horrela, ondorioak minimizatu egingo dira eta babes baliabideen erabilera optimizatu.

6.2.2 HELMENA

Bizkaiko Gizarte Urgazpeneko Foru Erakundeko zentro guztietan aztertu eta ezartzea, pertsonak bertan jardun behar badute eta haiek erakundearekin duten lotura zein den alde batera utzita.

6.2.3 INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

✦ Zuzendaritzarena

Larrialdi planen lanketa eta ezarpena GUFEn zentro guztietan garatzearen arduradun izango da, pertsonak bertan jardun behar badute.

✦ Zuzendari eta arduradunena

Larrialdi planetan gomendatzen diren neurriak egiteaz arduratuko dira, ardurapean dituzten eraikinetan. Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuarekin lankidetzan arituko dira.

✦ Langileen agintari zuzenena

Larrialdiaren nagusien jarraibideen ondotik, hustuketa planean deskribatzen diren jarduerak egingo dituzte, suhiltzaileekin eta salbamendu taldeekin koordinatuz. Horrela, larrialdiak ahalik eta kalte eskasena eragingo dizkiete pertsonari eta instalazioei.

✦ Prebentzio Zerbitzuarena

Prebentzio planetan gomendatutako neurriak egiten direla kontrolatzeaz arduratuko da.

Beharrezko prestakuntza proposatuko dute suteen aurka egiteko, salbamendurako eta erakundeko langileak kanporatzeko.

6.2.4 EDUKIA ETA GARAPENA

Larrialdi eta/edo norberak bere burua babesteko planak sute arriskuari edo antzeko beste arriskuren bati aurrea hartzeko eskura dauden giza baliabideak eta baliabide materialak antolatzea bezala definitzen dira. Halaber, berehalako hustuketa antolatua bermatu behar da, horrelakorik behar den kasuan.

Eraikin bakoitza babesteko planak atal ezberdinak izango ditu:

1. *Larrialdietako telefono direktorioa* (suhiltzaileak, polizia, anbulantziak, babes zibila).
2. Idatzitako *jarraibideak*, larrialdien aurka *jarduten duten* pertsonen zuzenduta.
3. *Arriskuaren ebaluazioa*, eraikinaren arrisku baldintzak aztertu eta baloratu dauden baliabideekiko. Halaber, egin beharreko aldarazpenak eta hobekuntzak definitu beharko dira, horiek deuseztatu edo gutxitzeko helburuarekin.
4. *Babes baliabideak*. Zerrenda egingo da eskura dauden baliabide material eta giza baliabide guztiekin, eta beharko direnak eta horiek mantentzeko baldintzak proiektatuko dira.
5. *Larrialdi plana*. Gerta daitezkeen larrialdi hipotesiak zehaztuko dira, larrialdia kontrolpean dagoela bermatzeko jarduerekin eta beste datu interesgarri batzuekin batera.
6. *Ezarpena*. Plana hedatzea, eraikinean dauden guztiak jakinaren gainean jartzea eta, larrialdien aurka jarduteko langileen prestakuntza zehatza erabiliz, simulazioak prestatzea eta plana eguneratzea aurreikustea horrelakorik behar denean.

SEINALEZTAPENA

HELBURUA

Oharrak, debekuak, betebeharrak edo beste adierazpen batzuk jakinarazteko erabili behar den seinaleztapen prozedura ezartzea, laneko arriskuen gaineko kontrol egokiagoa izateko.

HELMENA

Atal honen helmenaren barruan sartzen da zentroetan edo laneko lokaletan ezarri behar den segurtasun, ikusteko edo entzuteko seinaleztapen oro.

INPLIKAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Zuzendariena eta/edo arduradunena

Neurri egokiak hartuko dituzte lantokietan segurtasuneko seinaleztapen egokia eta aurreneurri eta babes neurrien osagarria izan dadin, horrelakorik behar den kasuan.

Erdi-mailako agintariak

Horien aplikazioa nahiz kontserbazio egokia hauen ardurapean egongo da.

Langileria

GUFeko kide diren langileek zein kide ez direnek nahiz foru erakundearen jabetzako zentzoren batean dauden kanpotar guztiak enpresak ezarritako seinaleztapenean zehazten diren betebeharrak edo debekuak bete beharko dituzte.

Prebentzio Zerbitzua

Dauden arriskuak, aurreikus daitezkeen larrialdi egoerak eta ikuskapen horiek eta gero hartutako prebentzio neurrien ondoren dauden seinaleak aldarazi, zuzendu eta/edo balio gabetuko dira egoki irizten bada.

Halaber, aldizka seinaleztapena eta seinale horien kokapena egokia dela ziurtatuko da.

EDUKIA ETA GARAPENA

“Segurtasuneko seinaleztapen” moduan ulertzen dira pertsona baten jarduna baldintzatzen duten bultzagarriak, azpimarratu nahi diren inguruabar batzuen aurrean jasotakoak horiek (arriskuak, babesen erabilera, eta abar). Prebentzio neurri bat da eta arriskuen berri emateko, arauak indartu eta gogorarazteko eta, orokorrean, segurtasuneko portaeren alde egiteko erabiltzen dira.

Ez da neurri teknikoan eta taldeko babesaren antolamenduaren ordezkotzat hartzen, eta arriskuak erabat deuseztatu edo behar beste gutxitzeko aukerarik ez dagoenean erabiliko dira beti.

APLIKA DAITEKEEN LEGERIA ETA DOKUMENTAZIOA

- **Azaroaren 8ko 31/1995 Legea**, laneko arriskueta aurrea hartzekoa.
- **Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua**, Prebentzio Zerbitzuen arautegia onartzen duena, eta ondoren apirilaren 30eko 780/1998 Errege Dekretuak (urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua aldarazten duena) eta maiatzaren 19ko 604/2006 Errege Dekretuak ekarritako aldarazpena.
- **Apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretua**, laneko segurtasunaren eta osasunaren seinaleztapenaren gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- **Apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretua**, lantokietan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.
- **Apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretua**, langileei arriskuak eta, bereziki, bizkarrekoak ekartzen dizkieten kargak eskuz erabiltzeari buruzko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- **Apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretua**, ikusteko pantailak eranstean dituzten ekipoeekin lan egiteari buruzko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- **Maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretua**, langileak lanaldian agente biologikoen ingurunean aritzearekin uztartutako arriskuen aurka babesteari buruzkoa.
- **Maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretua**, langileek norbera babesteko ekipoak erabiltzeari buruzko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- **Uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretua**, langileek laneko ekipoak erabiltzeko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.
- **Abuztuaren 1eko 1314/1997 Errege Dekretua**, azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretuak onartutako Altxagailuen eta Mantentzeko gailuen Arautegia aldarazten duena.
- **Uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretua**, istripuei datzekien arriskuen gaineko kontrol neurriak onartzen dituena.
- **Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua**, eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.
- **Azaroaren 5eko 38/1999 Legea**. Eraikuntzaren antolamendua.
- **2000ko ekainaren 5eko Agindua**, gas konprimituko, likidotuko eta presiopean disolbatutako botila eta botila handien gaineko presio gailuen arautegiaren ITC MIE AP7a aldatzen duena.
- **2001eko otsailaren 22ko Ebazpena**, Politika Teknologikoko Zuzendaritza Nagusiarena, Europako parlamentuaren eta Kontseiluaren 97/23/CE Zuzentaraua, presio bidezko ekipoei buruzkoa, aplikatzeko xedapenak ematen dituen maiatzaren 7ko 769/1999 Errege Dekretuaren eremuan arau bateratuen zerrenda argitaratzea adosten duena.
- **1996ko uztailaren 24ko Ebazpena**, 1987ko irailaren 23ko Agindua eguneratzen duena. Horren bidez Altxagailuen eta Mantentzeko gailuen Arautegiaren MIE-AEM 1 jarraibide tekniko osagarria onartzen da, hain zuzen ere Igogailu Elektromekanikoak Eraiki eta Instalatzeko Segurtasun Arauei buruzkoa.
- **Apirilaren 5ko 374/2001 Errege Dekretua**, lanaldian agente kimikoekin lotutako arriskuen aurka langileen osasuna eta segurtasuna babesten duena.
- **Ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretua**, arrisku elektrikoaren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gutxieneko xedapenei buruzkoa.

- **Azaroaren 16ko 1251/2001 Errege Dekretua**, amatasunagatik eta haurdunaldi arriskutsua izateagatik Gizarte Segurantzaren sistemak zehaztutako prestazio ekonomikoak arautzen dituena.
- **2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua**, tentsiopeko Arautegi elektromekanikoa onartzen duena.
- **Urtarrilaren 24ko 99/2003 Errege Dekretua**, substantzia berrien aldarazpena eta substantzia arriskutsuen eta horien sailkapena, ontziratzea eta etiketak jartzeari buruz martxoaren 10eko 363/1995 Errege Dekretuak onartutako Arautegia aldarazten duena.
- Apirilaren 25eko 464/2003 Errege Dekretua, uztailaren 19ko 707/2002 Errege Dekretua aldarazten duena. Horren bidez, Lan Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak jarduteko administrazio prozedura bereziari buruzko Arautegia eta Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan laneko arriskueta aurrea hartzearen gaian urradurak egoteagatik neurri zuzentzaileak jartzea onartu zen.
- **Ekainaren 12ko 681/2003 Errege Dekretua**, lantokietan ingurune lehergarrietan egotetik eratorritako arriskuekin aritzen diren langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa.
- **Uztailaren 4ko 865/2003 Errege Dekretua**, legionelosiari aurrea hartzeko eta hura kontrolatzeko higie eta osasun irizpideak ezartzen dituena.
- **Abenduaren 12ko 54/2003 Legea**, laneko arriskuen prebentzioaren esparru arautzailea aldarazten duena.
- **2004ko otsailaren 17ko Ebazpena**, Herri Administrazioarako Estatu Idazkaritzarena, Estatuko Administrazio Orokorrarentzat Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketa Sistemaren eredia onartu eta argitaratzen duena.
- **Europa mailako zuzentarauak.**
- **Arriskuei Aurrea Hartzeko Gida Tekniko Legegileak.**